

KANBOKO HERRI BILTZARRAREN

2022ko APIRILAREN 12ko

BILKURA AKTA LABURRA

Hor ziren: Christian Devèze, Auzapeza, Eliane Aizpuru, Jean-Noël Magis, Yolande Huguenard, Robert Poulou (19:58 arte), Christiane Hargain-Despéries, ordeak, Véronique Cadepond-Larronde, Corinne Othatcegy (19:48 arte), Jean-Paul Eyherachar (20:00etatik goiti), Nicole Amestoy, Jean-Jacques Lassus, Isabelle Ayerbe (19:10etik goiti), Maud Gastigard, Roger Barbier (20:00etatik goiti), Bernadette Remeau, Sébastien Carre, Carmen Gonzalez, Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Amaia Beyrie, Lilian Hirigoyen, Alain Boscq, herri kontseilariak.

Ezin etorriak: Didier Irastorza, Marie Aristizabal, Robert Poulou (19:58tik goiti), Vincent Goytino, ordeak, Peio Etcheleku, Corinne Othatcegy (19:48tik goiti), Jean-Paul Eyherachar (20:00ak arte), Isabelle Ayerbe (19:10 arte), Jean-François Lacosta, Roger Barbier (20:00ak arte), Jean-Paul Alaman, herri kontseilariak.

Ahalordeak: Didier Irastorza-k Eliane Aizpuru-ri, Marie Aristizabal-ek Yolande Huguenard-i, Robert Poulou-k Bernadette Remeau-ri (19:58tik goiti), Vincent Goytino-k Jean-Noël Magis-i, Corinne Othatcegy-k Christiane Hargain-Despéries-i (19:48tik goiti), Jean-Paul Eyherachar-ek Christian Devèze-ri (20:00ak arte), Roger Barbier-ek Maud Gastigard-i (20:00ak arte), Jean-Paul Alaman-ek Argitxu Hiriart-Urruty-ri.

Saioko idazkariaren izendapena.

Biltzarkideek aho batez, Jean-Jacques Lassus hautatu dute saioko idazkari izateko.

28– Bordart etorbideko lur sailen eskuratzea: eremu publikora pasatzea eta sailkatzea.

Magis jaunak biltzarrari azaldu dio SAS MAS enpresak, LAVIGNE jaunak ordezkaturik, Bordart etorbideko 32m²ko AV 297 eta 299 lur sailak euro sinbolikoaren truke uzteko adostasuna adierazi duela. Honela, THPko 22. leku erreserbatuan etorbidea 10 metroko zabalerara zabaltzen ahalko da.

Herri Biltzarrari proposatu dio:

- Bordart etorbideko 32m²ko AV 297 eta 299 lur sailen eskuratzeaz eta horiek eremu publikora pasatzeaz eta sailkatzeaz erabakitzea,
- Herriak gastuak bere gain har ditzala onartzea,
- Auzapezari baimena ematea eroste horretarako behar diren izapide guztien egiteko.

Auzapezak bozkara eman du.

Aho batez onartua.

29 – Langileria: langile kopuruen taularen eguneratzea.

Auzapezak oroitarazi du urtero hartzen dutela erabaki bera. Horren helburua da urtean zehar izan diren postu sortzeen ondorioz bereziki langileen taula eguneratzea.

Herri Biltzarrari proposatu dio 2022ko martxoaren 31ko langileen taula onartzea.

Auzapezak bozkara eman du.

Aho batez onartua.

30 – Langileria: Lurraldeko Gizarte Batzorde baten sortzea eta langileen ordezkarien kopuruaren finkatzea.

Auzapezak oroitarazi du Frantziako 2019 abuztuaren 6ko legeak, lurralde funtzio publikoaren eraldaketari buruzkoa, Lurralde Gizarte Batzordea (Comité Social Territorial (CST) instantzia sortu zuela. Instantzia berriak Batzorde Teknikoa (CT) eta Higiene, Segurtasun, eta Lan Baldintzen Batzordea (CHSCT) bateratzen ditu eta 2022ko abenduan iraganen diren langile hauteskundearen kariatara indarrean ezarriko da.

Herriko eta GEUZeko langile guztientzako egitura bakarra izatearen interesa ikusirik, Herri Biltzarrari proposatu dio bi egiturentzako LGB (CST) amankomuna sortzea.

Bere lehendakariak gain, LGB hautetsiz eta langileen ordezkariak osatua da, biak kopuru berdinetan.

Herriko langileen kopurua eta GEUZekoa kontuan hartuz (84 langile), ordezkarien kopurua 3 eta 5 artean izan behar da.

Auzapezak proposatu du ordezkari titularren kopurua 3ra finkatzea, horietariko bakoitzak ordezeko bat ukanik.

Ayerbe anderea gelan sartu da.

Herri Biltzarrari eskatu dio:

- Herriko eta GEUZeko langileen gaietarako eskumena izanen duen LGB bakarra sortzea, biltzarkide guztiei helarazi zitzaizen azalpen ohar sintetikoan aurkeztua denaren arabera.
- langileen ordezkarien kopurua hirura finkatzea, bi herriko langileentzat eta bat GEUZarentzat.

Auzapezak bozkara eman du.

Aho batez onartua

31 – Finantzak: ondasun ibilgetuen amortizazioa M57 kontularitza araudian.

Aizpuru andereak oroitarazi du, 29-09-2021-066 erabakiarekin Herri Biltzarrak M57 kontularitza araudi berria 2022ko urtarrilaren 1etik erabiltzea onartu zuela.

M57 kontularitza eta aurrekontuen kontularitza nomenklatura horren segitzeak ibilgetuen amortizazioen kudeaketa modua finkatzea behartzen du. Horren aplikazio esparrua LKKOko R.2321-1 araudian zehazten da, zeinak herrietako amortizazio arauak finkatzen dituen.

Ibilgetuen amortizatze denbora kategoria bakoitzarentzat libreki finka dezake Herri Biltzarrak, honako kasuetan izan ezik:

- Frantziako Hirigintza Kodeko L.121-7 artikuluko hirigintza agiriei dagozkien gastuak (10 urte),

- gauzatuak izan ez diren ikerketa gastuak (5 urte gehienez),
- ikerketa eta garapen gastuak (5 urte proiektua arrakastatsua baldin bada, bestela, aldi bakarrean porrot egiten bada),
- jaso diren inbertsio dirulaguntzak (204 atala) gehienez 5, 30 edo 40 urtez amortizatuak, diruz lagundu den gastuaren zergatiaren arabera.

M57 instrukzioaren arabera, amortizazio bakoitza kalkulatu da ibilgetu kategoria bakoitzarentzat, izanen duen erabilera denboraren arabera («prorata temporis»). Aparte geldituko dira balio txikiko ibilgetuak (< 500 € ZGB). Hautentzat, orain arteko M14ko urte beteko amortizazio linearra erabiliko da.

Auzapezak Herri Biltzarrari proposatu dio amortizazio epe berrien onartzea.

Auzapezak bozkara eman du.

Aho batez onartua.

32 – Finantzak: kredituak atal batetik bestera pasatzea - M57.

Aizpuru andereak oroitarazi du, 29-09-2021-066 erabakiarekin Herri Biltzarrak M57 kontularitza araudi berria 2022ko urtarrilaren 1etik erabiltzea onartu zuela.

M57 instrukzioak malgutasun handiagoa eskaintzen du, ezen Herri Biltzarrak Auzapezari baimena eman baitiezaioke atal bateko kredituak beste batera pasatzeko, langile kredituak izan ezik, betiere atal bakoitzeko gastu errealen %7,5eko muga batean (Frantziako LKKOko L.5217-10-6 artikulua).

Hala gertatzen bada, Auzapezak Herri Biltzarrari jakinaraziko dio erabakiaren ondorengo biltzar saioan.

Herri Biltzarrari proposatu zaio, Auzapezari baimena ematea M57a indarrean sartu denetik, atalez ataleko kreditu mugimenduak egiteko, langile gastuetako kredituak izan ezik (012), betiere atal bakoitzeko gastu errealen %7,5eko muga batean.

Auzapezak bozkara eman du.

Aho batez onartua.

33 – Finantzak: Aurrekontu eta Finantza Araudia.

Aizpuru andereak adierazi du M57 kontularitza nomenklaturara pasatzearekin derrigorrezkoa bilakatu dela aurrekontu eta finantza araudi baten ezartzea. Horren helburua da herriko kontuen finantza antolaketa eta aurkezpena argitzea eta arrazionalizatzea. Kanbo herriak hartzen dituen kudeaketa hautuen koherentzia indartzeko barne finantza prozesuak zehazten ditu besteak beste.

Gainera, jokoan den eragile bakoitzaren eginkizun estrategikoa ere zehazten du.

Araudi horrek ere derrigorrez bildu behar ditu Herri Biltzarrak aurrekontuak prestatu eta onartzeko baldintzak, baita agintaritzaren programak eta engaiamenduak baimentzeko segitu behar dituen arauak.

Araudia beharren eta lege nola arau bilakaeren arabera eguneratuko da.

Aizpuru andereak oroitarazi du 2022ko martxoaren 19an formakuntza goiz batera gomit zirela hautetsi guztiak M57ra pasatzeari buruz.

Herri Biltzarrari proposatu dio aurrekontu eta finantza araudia onartzea, biltzarkide guztiei helarazi zitzaizen azalpen ohar sintetikoan aurkeztua denaren arabera.

Aiçaguerre andereak iradoki du araudia herriko webgunean ezartzea, Kanboko biztanleek beren herriko aurrekontu eta kontularitza funtzionamenduaren berri ukan dezaten.

Auzapeza ados agertu da eta bozkara eman du.

Aho batez onartua.

34 – Bertako zergak: tasaren finkatzea.

Aurrekontu norabideei buruzko Herri Biltzarraren saioan aurkeztu bezala, Auzapezak jabego eraiki eta ez eraikien gaineko lur funtsen zerga 2021 urteko inflazioaren hein berean emendatzea proposatu du, hots %2,10.

Ondorioz, funts eraikien zerga %24,35tik %24,86era pasatuko litzateke, eta funts ez eraikiena %25,46tik %25,99era.

Auzapezak zehaztu nahi izan du, emendatze hori indarrean ezarri-eta, herria inguruko eta maila bereko beste herrietan ematen diren zerga tasen azpitik egoten dela.

Hiriart-Urruty andereak ohartarazi du inflazio tasak emendatze azkarrean direla, eta horrek eragina baduela ere familien aurrekontuetan. Herriak keinu egin zezakeen 2022ko tasak 2021eko heinean mantenduz. Hori da, hain zuzen, bere taldeak erabaki horren kontra bozkatzeko arrazoia.

Auzapezak bozkara eman du.

Gehiengoz onartua.

Kontra bozkatu dute: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aiçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Lilian Hirigoyen, Alain Boscq.

35 – Elkarteentzako dirulaguntzak.

Auzapezak adierazi du biltzarkide guztiek ukan dutela herriak aurten elkarteei eman asmo dien dirulaguntzen xehetasuna. Zenbateko orokorra 330 950 €koa da eta 2019ko heinera itzuliko litzateke, bereziki dirulaguntza handienei dagokienez.

Aurten, herriak xehetasun gehiago nahi izan ditu dirulaguntza txosten osatuagoak ukateko. Nahi genituen xehetasun guztiak ez ditugu ukan, eta horregatik dirulaguntza eskaera zerrendan batzuk osatu gabe bezala agertzen dira. Auzapezak zehaztu du eskaera berezi hori dirulaguntza aipagarriak eskatzen dituzten elkarteei egiten zaiela. Eskaera xumeagoei dagokienez, ez dira beti aurrekontuak eta estatutuak eskatu.

Aurten, biziki handiak ez diren dirulaguntzen kasuan, baina 2019koak baino handiagoak direnean, herriak %2,10eko inflazio tasa ezarri du.

Aiçaguerre andereak galdetu du ea txosten ez osoa duten elkarteei gutuna igorri ote zaien eskas direnak eskatzeko.

Aizpuru andereak ihardetsi dio dirulaguntza txosten osatua duten elkarteei emanen zaiela. Halere, eskas diren agiriak ez badira garrantzitsuak, dirulaguntza emanen zaie.

Huguenard andereak zehaztu du Herriko Etxean dirulaguntzez arduratzen den langileak txosten osatu gabea duten elkarteei sistematikoki igortzen diela emaila eskas diren agiriak zehaztuz.

Beyrie andereak galdetu du zer desberdintasun dagoen «2022ko proposamena» eta «2022ko erabakia» artean, zeren batzuetan alde handiak baitira.

Aizpuru andereak lan dokumentuak direla erantzun dio. Eskaeraren arabera dirulaguntza proposamena egin da, txostenen osotasunari begirako sailkapena egin da eta talde-erabakia hartu da.

Beyrie andereak galdetu du ea posible den aztertuak izan ez diren txostenen zerrenda ukatea.

Auzapezak erantzun dio zerrenda igorriko zaiola.

Hiriart-Urruty andereak ohartarazi du Michel Labeguerie'ren lagunak elkartearen dirulaguntza jadanik bozkaturik izan zela.

Auzapezak ihardetsi dio dirulaguntza eskaera bat ukan zuela Peio Labéguerie-ren aldetik kontzertuaren antolatzeko, eta beste bat Latsarriaren aldetik heldu den maiatzean antolatuko den omenaldiarentzat.

Aiçaguerre andereak galdetu du ea Turismo Bulegoak kontu egiaztatuak aurkeztu dituen.

Auzapezak baietz erantzun dio, eta kontu ikuskariaren txostena ere igorri zaiola, ezen dokumentu publikoa baita eta Turismo Bulegoaren biltzar nagusian horren irakurketa egiten dela.

Auzapezak bozkara eman du.

Aho batez onartua.

36– G.E.U.Zaren dirulaguntza.

Auzapezak adierazi du, 2022ko apirilaren 1eko gutun bidez Kanboko GEUZak herriari 160 000€ko dirulaguntza eskatu diola 2022 urterako. Gai horri loturik, Auzapezak zehaztu du aitzineko urteetan GEUZari isuri diruaren 200 000€ko soberakina herrira itzuliko dela. Diru hori herriak larrialdi egoeretarako bi etxebizitza egiteko Bru etxea erosteko baliatuko duela.

Auzapezak bozkara eman du.

Aho batez onartua.

37 – Eskolen Kutxarentzako dirulaguntza.

Auzapezak oroitarazi du Eskolen Kutxako Batzordea 2022ko apirilaren 11an bildu dela 2022ko hasierako aurrekontuari buruzko iritzia emateko. 2021eko amaierako kontuak eta hiru eskola publikoetako ikasle kopuruak kontuan izanik, 6 330€ko beharra kalkulatu da. Diru hori herriak emanen du eta hiru eskolen artean honela partekatuko da:

- Lehen mailako eskola: 3 933,00 €
- Ama-eskola: 1 563,50 €
- Behereko Plazako eskola: 833,50 €

Beyrie andereak eskolen ikasle kopuruak eta beren bilakaera nolakoak diren galdetu du.

Auzapezak honako kopuruak eman dizkio:

- lehen mailan: 138 haur,
- ama-eskolan: 53 haur,
- Behereko Plazan: 7 haur ama-eskolan eta 22 lehen mailan.

Orokorrean, ikasleen kopuruak behera jo du. Ohartu behar da ere publikotik pribaturako mugimenduak eman direla.

Behereko plazako eskolari dagokionez, kopuruak beheiti doaz eta eskolaren biziraupenaz zalantzak sortzen ditu joera horrek. Heldu den ikasturterako aurreikuspenak 33 ikaslekoak dira. Auzapeza saiaturako da Akademia Ikuskariarekin hitzartzen erabaki hori gibela dezan, Behereko Plazako eskola atxikitzen saiatzeko. Zehaztu du berau eskola baten hestearen kontra ager daitekeela, eta berak ez duela sekula Behereko Plazako eskolaren hesteko ordenantza izenpetuko.

Auzapezak bozkara eman du.

Aho batez onartua.

38 – Hautetsien urteko sariak.

Auzapezak adierazi du urtero, herriko aurrekontua aztertu aitzin, herriak herri biltzarkideei jakinarazi behar diela hautetsiek zenbateko sariak ukan dituzten. Biltzarkide guztiei igorri zitzaizen 2021eko sarien bilduma azalpen ohar sintetikoaren eranskin gisa.

Herri Biltzarrak, 2021eko hautetsien sarien bildumaren berri izan duela aitortu du.

39 – Aurrekontu nagusia: 2022ko hasierako aurrekontuaren bozkatzea.

Aizpuru andereak espreski Zerbitzuetako Zuzendari Nagusia, kontularitza eta Giza Baliabideetako zerbitzuak eskertu ditu prestatu dituzten dokumentu guztiengatik.

Herri biltzarkide guztiek ukan dituzte 2022ko hasierako aurrekontuaren egiteko azalpen taulen berri. Dokumentu horiek 2022ko apirilaren 5eko finantza batzordean aurkeztu eta presente zirenen gehiengoaren oniritzia ukan zuten.

M57 nomenklaturak aldaketa zenbait eragiten du, 2021eko irailaren 29ko Herri Biltzarreko 66. puntuan azaldu bezala: « informazio gisa, kontularitza nomenklatura horrek nahitaez aurrekontuen diseinuan aldaketa dakar. Ondorioz, 2022ko hasierako aurrekontuari dagokionez, BP n-1 zutaberik ez da beteko, beste kontularitza araudi bati baitagokio... »

Bizkitartean, kontularitza zerbitzuak kontuak bi nomenklaturetan landu ditu, aitzineko urtearekin konparaketa ahalbidetzeko. Aldaketak 1. zutabea agertzen dira, urdinez; 67 eta 77 erroak kasik desagertzen dira (ez ohiko sartze eta gastuak), 65 eta 75 bilakaturik.

Corinne Othatceguy anderea gelatik atera da.

Aurrekontua 11 384 766,00 € inguruan orekatzen da, funtzionamendu atalean 6 617 797,00 €rekin eta 4 766 969,00 €ko inbertsioekin.

- ❖ Aizpuru andereak funtzionamendu ataleko sartzek aurkeztu ditu (6 617 797 €) 6 505 627 €ko sarte errealekin, honela banaturik:

- 002 - Funtzionamenduko emaitzaren berriz hartzea	184 158 €
- 013 - kargen lausotzeak	21 400 €
- 70 - zerbitzuen sartzek	752 200 €
- 73 – zergak.....	3 794 926 €
- 74 - Zuzkidurak, dirulaguntzak eta parte hartzeak	1 275 383 €
- 75 - Kudeaketa arrunteko beste sartzek	477 560 €

042n, 112 170 €ko atalen arteko ordena eragiketak

- ❖ Aizpuru andereak funtzionamendu ataleko gastuak aurkeztu ditu (6 617 797 €) 6 250 797 €ko gastu errealekin, honela banaturik:

- 011 - karga orokorrak	2 079 550 €
- 012 - Langileria kargak eta antzekoak	2 954 100 €
- 014 - etekinen lausotzeak.....	118 500 €
- 023 - inbertsio atalerako transferentzia.....	257 347 €
- 65 - Kudeaketa arrunteko beste kargak.....	825 295 €
- 66 - finantza kargak	15 005 €
- 67 - ez ohiko kargak.....	1 000 €

042n, 367 000 €ko atalen arteko ordena eragiketak

- ❖ Aizpuru andereak inbertsio ataleko sartzek aurkeztu ditu (atala 6 617 797 €tan orekaturik) 6 505 627 €ko sarte errealekin, honela banaturik:

- 021 - funtzionamendu ataletiko transferentzia.....	257 347 €
- 024 - inbertsioen uzteak	547 415 €
- 10 - Zuzkidurak, Orotariko Funtsak, Erreserbak	1 338 000 €
- 13 - Inbertsiorako dirulaguntzak.....	427 207 €
- 16 – Maileguak eta antzeko zorrak	1 800 000 €

040an, atalen arteko 367 000€ko ordena eragiketak eta 041ean 30 000€ko ondare eragiketak (hots 397 000€)

- ❖ Aizpuru andereak inbertsio ataleko gastuak aurkeztu ditu (4 766 969 €) 4 624 799 €ko inbertsio gastu errealekin, honela banaturik:

- 001 - inbertsioen egikaritze saldo negatiboa.....	229 998,66 €
- 10 - Zuzkidurak, Orotariko Funtsak, Erreserbak	5 838,00 €
- 16 – zorren itzultzea.....	232 500,00 €
- 20 - ibilgetu gorputzgabeak	145 760,00 €
- 204 - ekipamendu dirulaguntza isuriak.....	400 000,00 €
- 21 - ibilgetu gorputzdunak.....	1 093 193,34 €
- 23 - bidean diren ibilgetuak	2 371 209,00 €

- 26 - parte hartzeei loturiko partizipazioak eta hartzekoak500,00 €
- 27 – beste finantza ibilgetuak 145 800,00 €

040an, 112 170 €ko ordena eragiketak eta 041ean, 30 000 €ko ondare eragiketak.

Robert Poulou jauna gelatik atera da.

2022 urteko inbertsio programa 4 155 962,34 €koa da, eta Aizpuru andereak honela zehaztu ditu inbertsio gastuak:

Jean-Paul Eyherachar eta Roger Barbier jaunak gelan sartu dira.

Errepideak	525 000 €
Paskaleku.....	400 000 €
Hautzain	130 000 €
Funtsen erostea (Bru etxea).....	250 800 €
ToLFEP (Dieudonné).....	145 800 €
Gurutze Gorriaren eraikina	215 000 €
Gurutze Gorriaren aparkalekua	80 000 €
San Laurendi elizako organoa	144 000 €
Tenis zelai estaliak	500 000 €
Ad' Ap.....	204 000 €
Arnagako fatxaden margotzea.....	170 000 €
Bideo-babesa	238 000 €
Informatika sarea eta zuntz optikoa	90 000 €
Suteen kontrako segurtasun ekipamenduak	68 600 €
Gurpildun pala mekanikoa	150 000 €
Traktorea	45 000 €

Aiçaguerre andereak galdetu du ea herriak ez ote duen gehiago Belly etxea erosi behar.

Auzapezak ihardetsi dio bi ekintza, bata gastuetan eta bestea sartzeetan, ez direla gauzatuko.

Lehena, Belly etxearen eskuratzea da. 130 000€ko ekintza horretan auzibide bat irekia da. Litekeena da herriak proiektu hori burura ez eramatea, bost adarreko biribilgunea egiteko xedea baitu. Horregatik, Halary etxearen eremuan aurreikusia den etxe multzo berrirako sarbidea egiteko ez dugu Belly etxearen ondotik pasatu beharko.

Bigarrena, Musdehalsuenbordaren salmenta da, 210 000 €tan. Lurraldeko hautetsi direnek ongi ezagutzen dute gaia. Hainbat gorabeheren ondotik, salmenta ezingo da egin. Auzapezak deitoratzen du Errobi lurralde eremuko erreferentea ez baita hor egun, ezen mezu luzea igorri baitzien lurraldeko batzordekideei Euskal Elkargoak lehentasunez erosteko eskubidea baliatu izana justifikatzen baitzuen.

Hiriart-Urruty andereak galdetu du ea herriak Euskal Elkargoari salduko ote dion ondasun hori.

Auzapezak, oraingoz ez dela erabakirik hartu.

Hiriart-Urruty andereak azpimarratu du orain hiruzpalau urte hartu zela saltzeko erabakia.

Auzapezak baietz. Hainbat helegite egin ziren erabaki horren kontra. Erabakiak deialdia esleitu zaionari eskubideak sortu zizkion. Baina, legezketasun osoz emana izan zen eraikitze baimena bertan behera gelditu da Euskal Elkargoko lehendakariak lehentasunez erosteko eskubidea baliatu duenean. Bertze manera batez errateko, Euskal Elkargoko lehendakariak elkargokoa den herri bateko Auzapezaren kontra egin du. Jurisprudentzia sor dezakeen ez ohiko egoera da...

Hiriart-Urruty andereak jakin nahi du zertan den tenis estalien txostena.

Zerbitzuetako Zuzendari Nagusiak zehaztu du deialdi publikoa argitaratu dela eta deialdien batzordea maiatzaren 24ean bilduko dela eskaintzen aztertzeko eta enpresen hautaketa egiteko.

Beyrie andereak adierazi du irisgarritasun batzordea aspaldi ez dela bildu. Uste duenez, epe muga bat emana zen lanen egiteko. Gai horretaz xehetasun gehiago nahi luke.

Magis jaunak erantzun dio egin diren lan guztien aurkezteko bilkura bat antolatuko dela.

Eyherachar jaunak zehaztu du irisgarritasunerako lanak zenbait alditan programatu zirela, besteak beste eskola oporretan, eskola eta kirol gelentzat, eta horrek egutegia gibelatu duela. Gainera, enpresa zenbaitek hornikuntza arazoak ukan dituzte Covid-arengatik, eta horrek ere lanetan beranta sortu du.

Hiriart-Urruty andereak Arnagaren argiztatzeko 35 000 €ko zenbatekoaz xehetasunak eskatu ditu.

Auzapezak ihardetsi dio parkearen gaur egungo argiteria hondatua dela eta berritu behar dela. Herriak auzibide handia du, 50 000€ ingurukoa, Laranjategian eta bidexkan argiteria egin duen enpresarekin.

Hiriart-Urruty andereak galdetu du ea Gurutze Gorriaren lokala coworking-erako ere baliatuko ote den.

Auzapezak erantzun dio Gurutze Gorriaren lehengo eraikina bidera daitekeela hamar bat lagun har lezakeen coworking gunea izateko.

Hiriart-Urruty andereak harridura adierazi du elizako organoaren 435 000 €ko aurrekontuarekin.

Auzapezak ihardetsi dio Herriak gehienez 200 000 € izanen dituela bere gain. Auzapezak zehaztu du kontratatzea bere taldearen programan idatzia zela. Gelditzen dena, dirulaguntzekin eta Organoaren Lagunak elkartearen dohainarekin ordainduko da.

Bacardatz jaunak funtzionamendu gastuetako lehen lau kapituluei buruzko galdera egin du (una eta saneamendua– energia/elektrizitatea – hiriko berogintza – erregaiak). Ohartarazi du 2022ko aurrekontua 2021eko aurreikuspen aurrekontuaren zenbateko gorena eta administrazio kontuaren artean oinarritzen dela. Bilakaera handiak atzeman ditu zenbatekoetan, eta galdetu du ea bolumen kontsumoaren emendatzeari edo prezioen emendatzeari zor zaion. Galdetu du ea herriak ba ote duen kontsumitu diren bolumenen xehetasunik.

Auzapezak ihardetsi dio kontsumitu diren bolumenen aztertzea lan gaitza dela, eta soilik herriko administrazio eta kontularitza zerbitzuek egin dezaketela.

Bacardatz jaunak galdegin du gutxienez 2022 eta 2021eko prezioak ukan ditzaketen, emendatzea prezioengatik den ala ez ikusteko.

Auzapezak Zerbitzuetako Zuzendari Nagusiari eskatu dio elementu horiek eman diezazkiola Bacardatz jaunari.

Aizpuru andereak zehaztu du elektrizitate gastuak 198 000 €koak zirela 2020an eta 172 000 €koak 2021ean. Badira erregularizazio arazoak, baina kontagailu konektatuei esker, gaurtik goiti kontsumoak hilabeteka segitzen ahalko ditugu.

Aiçaguerre andereak galdetu du ea jolas eremuak aurreikusiak diren Behereko Plazan. Donapetria auzoko bikote gazte zenbaitek egin baitiote berari galdera bera.

Aizpuru andereak ihardetsi dio San Josepe parkeko eta Behereko Plazako jolas eremuek indarrean diren arau guztiak betetzen dituztela. Jokoak fite hondatzen dira eta auzoetan zeudenak pixkanaka suntsitu dira. Herriak horien ez ordeztea erabaki du. Herriak erabakia alda lezake auzoko bilkuretan horren aldeko eskaerarik agertzen bada.

Hiriart-Urruty anderearen ustez, biztanleriaren arabera egokitu behar dugu.

Aiçaguerre andereari galdegin diote Behereko Plazako jolas eremuaren ondoan piknik mahaien ezartzeaz.

Auzapezak egingarria dela erantzun dio.

Bosq jaunak galdetu du zergatik kirol gelako biltegitratze atearen lanak aspaldian geldituak diren.

Eyherachar jaunak ihardetsi dio beranta hartu dutela arrazoi teknikoengatik, baina betoizko oinarria egin berria omen da eta laster bukatuko da obra.

Hiriart-Urruty andereak ikusi du desfibrilatzaileentzako 5 000 €ko aurrekontua badela. Suposatzen du beraz tresna berriak ezarriko direla.

Auzapezak baietz erantzun dio, eta zehaztu du oraindik ez direla zehaztu horien kokapenak. Gaur egun, desfibrilatzailea izan behar den leku guztietan badago.

Beyrie anderea ohartu da 238 000 € kostatuko den bideo-babes proiektuarentzat 120 000 €ko inbertsio sartze bat izanen dela. Galdetu du ea hori den herriak jasoko duen dirulaguntza.

Auzapezak erantzun dio dirulaguntza 27 500 €koa dela.

Aizpuru andereak zehaztu du 120 000 €ko zenbatekoa 2021eko aurreikuspen aurrekontuan idatzia zela. Frantziako estatuak 2021eko uztailaren 1ean 27 500 €ko dirulaguntza jakinarazi dio herriari.

Beyrie andereak galdetu du ea hori den herriak proiektu horrentzat ukanen duen dirulaguntza guztia.

Auzapezak, hori dela oraingoz herriak segur ukanen duena. Jendarmeriako ordezkarien arabera, bideo-babes sistemaren ezartzeak azkarki diruz lagundua izan beharko luke Frantziako estatuarengandik. Pirinio Atlantikoetako Prefetarekin elkartuko da eta saiatuko da dirulaguntza hori emendatzen.

Auzapezak bozkara eman du.

2022ko aurrekontu nagusiko funtzionamendu eta inbertsio atalak gehiengoz onartuak izan dira.

Kontra bozkatu dute: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Lilian Hirigoyen, Alain Boscq.

40– Programa Baimenak eta Ordainketa Kredituak.

Aizpuru andereak oroitarazi du Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L2311-3 artikulua araber, aurrekontu zuzkiduretako inbertsio gastutzat har daitezkeela Programa Baimenak eta Ordainketa Kredituak (PB/OK).

M57 kontularitza nomenklaturaren araber, programa baimenen prozedurak (PB) onar daitezke inbertsio gastuentzat.

Programa Baimen horiek (PB) inbertsioen finantzatzeko erabil daitezkeen gastuen gain muga finkatzen dute. Iraungiezinak dira deuseztatu arte, eta aldatuak izan daitezke.

PB bakoitzarentzat ariketa bakoitzean dagozkion ordainketa kredituen banaketa aurreikusten da. Ordainketa kreditu horiek urtean agindu daitezkeen gastuen gain muga finkatzen dute, PB bakoitzaren esparruan.

Herri Biltzarrari honako programa baimenak eta dagozkien banaketa honela proposatu zaio:

Zenbakia eta izendapena	Gaia	PB zenbatekoa	Ordainketa Kredituen Banaketa		
			2022	2023	2024
2022-001 "Haurtzaingo argiteria publikoa"	Haurtzain auzoko argiteria publikoaren eraberritzea, ingeniariaritz zibileko obrak eta puxika fluoreszenteen ordezte barne (SDEPA)	210 512 €	130 000 €	80 512 €	
2022-002 "elizako organoa"	San Laurendi elizarako organo baten egitea	435 000 €	144 000 €	252 000 €	39 000 €
2022-003 "tenis estaliak"	2 tenis zelai estaliren egitea	1 450 000 €	500 000 €	950 000 €	
2022-004 "Arnagako aitzinaldeak"	Arnagako fatxaden margotzea	402 000 €	170 000 €	232 000 €	
Orotara		2 497 512 €	944 000 €	1 514 512 €	39 000 €

Auzapezak zehaztu du aurkeztu diren programentzako herriak gutxieneko finantza elementuak badituela.

Hiriart-Urruty andereak adierazi du oposizioko taldeak kontra bozkatuko duela, zeren beretzako elizako organoaren proiektua ez baita lehentasuneko. Hasierako aurrekontuaren kasuan bezala, badira gauza interesgarriak, baina beste batzuk ez, bideo-babesa bezala. Bistan de bere taldea ez dela tenis estalien proiektuaren kontra.

Hiriart-Urruty andereak lehentasunak ditu aipagai, baina Auzapezak galdetu dio ea PB/OK printzipioa ulertu duen. Programa baimenak ez dira urteko lehentasunak.

Auzapezak bozkara eman du.

Gehiengoz onartua.

Kontra bozkatu dute: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Lilian Hirigoyen, Alain Boscq.

41 – Hilobi eta kolunbarioen aurrekontu erantsia: 2022ko hasierako aurrekontuaren bozkatzea.

Aizpuru andereak hilobi eta kolunbarioen 2022ko hasierako aurrekontua aurkeztu du, funtzionamendu atal bakarra duena eta 35 943 €tan orekatzen dena.

Auzapezak bozkara eman du.

Aho batez onartua.

- Herriaren hirigintza proiektuak ikusirik, Hiriart-Urruty andereak galdetu du ea hirigintza batzordearen bilkura bat pentsatua den Tillac proiektuarentzat.

Auzapezak erantzun dio gai hori aipatu ahal izateko lehenik elementuak behar dituztela. Oraingoz, oinordetza prozedura bat irekia da notario baten eskupean. Bistan da herriak gaia segitzen duela eta domeinuei ondasunaren balorazioa eskatu die.

- Aïçaguerre andereak galdetu du ea herriak proiekturik ba ote dun Toki-Ederren pareko terrenoan, Konkurtso Funtsen bidez eskuratu duena.

Aizpuru andereak erantzun dio Ste Marie-Denentzat eremuan programazio ikerketa baten egiteko 50 000 €ko aurrekontua baztertu dela.

Hiriart-Urruty andereak zer programazio den galdetu du.

Auzapezak oraingoz ez dela deus aitzinatu. Kanbo erdiguneko eremu horren garapenerako ikerketa bat eginga izanen da.

Hiriart-Urruty andereak ohartarazi du hori behin-behineko gardentasuna dela.

Auzapezak erantzun dio, hauteskunde kanpaina denboran beti erran duen bezala, gaur egun Le Central ostatua eta Eliza arteko merkataritza ardatzaren grabitate zentroa lekuz aldatu nahi duela. Herriak proiektu harmoniatsua proposatu nahi du terreno horren auzo den Toki-Eder egiturarekin.

Auzapezak Herri Biltzarraren saioa 21:00etan hetsi du.